

Naroa Pérez Iguarán

ARGAZKI ERAKUSKETA

"GAUEKOAK"

Otsailaren 2tik 28ra • 11:00-13:00

KULTUR ARETOA (DONIBANE KALEA 2)



Naroa Pérez Iguarán pedagogian lizentziatua bada ere, argazkilaria (arte)lanetan dabil azken urteotan. Ikasketa teknikotan bi urtez sakontzen aritu ondoren Amaiur Fotografia Eskolan, Madrilera jo zuen barne-diseinu inguruko trebakuntza areagotzera.

Jaietako kartelak, eskuliburuak lanketak... kolaborazio lanak ere eginak ditu inguru hauetan ezagunak diren medioetan: The Balde aldizkaria, ESETE aldizkaria, Donostia Aisia...

Orain Lezon dauden argazkien artean, barne-diseinua, autorretratua edo gauean ateratako argazkien bilduma ikus daiteke.


Orain arte egindako erakusketen artean, honako hauek dira aipagarrien:

- 2004ko matxoa. Hiru.di fotogaleria Donostia. "Análisis" (autorretratuak)
- 2004ko matxoa. Kazkazuri jatetxea. Donostia. "argi-jolasak" (espazio hutsak)
- 2004ko ekaina. El muro taberna. Donostia. "Análisis"
- 2004ko uztaila. Mutriku kulturetxea. Mutriku argazki taldeak antolatuta. "Análisis"
- 2004ko abuztua. Hiru.di fotogaleria: Donostia: "Argijolasak"
- 2006ko utzaila eta abuztua: Cafeteria Kursaal, "Análisis y Barberia"

Gezala

AUDITORIUMA


KULTURAK



Lezoko zine agenda

OTSAILA FEBRERO

2007



AUDITORIUMA

zine ma 800



Lezoko Unibertsitateko
Udala

AUDITORIUMA

Gezala

OTSAILAK - Febrero

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 1	22:00	LAS HERMANAS DE LA MAGDALENA
LARUNBATA 3	16:30	ALEX ETA ALEXIS
OSTEGUNA 8	22:00	TRIPLE xXx
LARUNBATA 10	16:30	HEIDI II
OSTEGUNA 15	22:00	TEMPORADA DE PATOS
LARUNBATA 17	16:30	SHERLOCK HOLMES II
OSTEGUNA 22	22:00	SECRETARY
LARUNBATA 24	16:30	BALTO: ORDEZKO HEGOAK

KULTUR HOTSAK

NAROA PEREZ IGUARAN

2TIK 28RA

11:00
13:00

ARGAZKI ERAKUSKETA

**LAS HERMANAS DE LA MAGDALENA**

Irlandan Magdalenarren komentuak oso ezagunak eta ugariak ziren garai batean. 'Bide txarretik' abiatzen ziren neskatxa gazteak erakunde horretara bidaltzen zituzten beren 'bekatuak' garbitzeko. Bertan, sufrimendu handiz, ordainsaririk gabe lan egin eta bizi izan ziren milaka emakume. Pelikulan lau emakume horien bizimodua erakutsiz erakunde hauek izan zirena azaltzen da.

2002, EB, Irlanda 119 min. Peter Mullan.
Anne-Marie Duff, Nora-Jane Noone,

**TRIPLE xXx**

Xander Cage misio berezi baterako errekrutatzen dute. Ez dio emozio berezirik egingo baino ezingo du ezezkorik esan. Bere lana mundua desagertarazi nahi duen gaizkile talde baten inguruko informazioa biltzea. Gaizkileen burua den Yorgik ez dio aukera handirik utziko ordea. Espioien sare bereziak kale egiten die gobernuaren segurtasun agentziari eta legez kanpo bizi den Xander Cagengana joko dute betiko xantaiaren sistema erabiliz: legearen alde jarri lagundu edo kartzelara. Ez arte bila joan pelikula honetara, hori bai ekintza eta tiroak nahi badituzu...

2002, EEBB. 124 min. Rob Cohen. Vin Diesel, Asia Argento, Samuel L. Jackson, Marton Csokas, Michael Roof.

**TEMPORADA DE PATOS**

Flama eta Moko 14 urteko txikitatik ezagutzen diren bi gazte dira. Ongi bizi-tzeko beharrezkoa den guztia dute, baina berriro ere igande aspergarri baten aurrean daudela konturatzen dira. Gurasoak ez daude etxean eta arratsalde-ari aurre egin beharko dute eskuan dutenarekin: bideojokoa, pizzak, freska-garriak eta telebista... Ez litzateke pelikula interesgarria ordea, bat-batean gauzak gertatzen hasiko ez balira. Mexikon egun egiten ari direnaren adibide adierazgarri bezain interesgarria.

2004, Mexiko. 90 min. Fernando Eimbcke.
Carolina Politi, Daniel Miranda, Diego Cataño, Danny Perea, Enrique Arreola.

**SECRETARY**

Lee Hollowayk bere buruaz beste egiten saiatzeagatik ingresatua zegoen erietxea utzi eta lan berri bat aurkitzen du. Lan berri horretan abokatu baten-tzat lanean hasiko da eta berehala lan harremana harreman sexualean bilakatzen da. Harreman sexualaren izaera sadomasokista izateak eta neskaren egoera mental desorekatuak istorio gogor bezain interesgarri baten aurrean jarriko gaitu. Egonezina sortzen duen pelikula horietako bat da. Zinema independentearen zinemaldi ospetsu eta prestigiotsuena den Sundance Festival-en epaimahai bereziaren sari nagusia jaso zuen.

2002, EEBB. 104 min. Steven Shainberg. James Spader, Maggie Gyllenhaal, Jeremy Davies, Lesley Ann Warren.

**ALEX ETA ALEXIS**

Alex eta Alexis anai-arreba bikiak, haien gurasoak bahituta dituzten gaizkileen bila dabiltza. Askatu egin behar dituzte eta gurasoen bila mila abentura zirraragarri pasa beharko dituzte: pertsona bitxiak, toki ezezagunak, arriskuak, gerta- era dibertigarriak... Abentura hauek Erdia Aroan kokatuak dauden heinean garai hartako bizimoduak ezagutzeko parada ezin hobea eskaintzen du filmeak.

2005, EH. 78 min. EITB
Marrazki bizidunak.

**HEIDI II**

Aitona, Pedro eta bere animali lagunekin egun ahaztezinak igaro ondoren Alpeetan, Heidik agur esan beharko die. Frankfurtera joan beharko du Klara bere lehengusinari laguntzera. Baina bizileku berrian kontuz ibili beharra du gure laguntxoak, Rottenmeier anderearekin topo egingo baitu. Berak klara zaintzen du eta arau oso zorrotzak ditu. Halere, Heidik bere alaitasun eta fantasiarekin dena gainditzeko gai izango da.

1976, Japonia, Alemania. 70 min. Isao Takahata.
Marrazki bizidunak.

**SHERLOCK HOLMES II**

Berriro ere, munduko detektibirik ezagunenetarikoa eta berarengandik inoiz banatzen ez den laguntzaile fidela marrazki bizidunetan ikusteko aukera izango dute haur lezoarrak. Bai, Sherlock Homes eta Watson doktoareak XX. mende hasierako Londonen kasu ziragarriak argitu beharko dituzte. Sherlockek Moriarty maltzurari aurre egin beharko dio oraingo honetan. Akzioa, ustekabe-ko amaierak eta umore ezin hobea... Une zoragarriak pasatzeko aukera hau ez pasatzen utzi!

2002, Japonia, Italia. 100 min. Hayao Miyazaki.
Marrazki bizidunak.

**BALTO: ORDEZKO HEGOAK**

Alaskan lera tiratzaileak diren zakurrak oso beharrezkoak ziren garraiorako eta, Balto eta Kodi semea horretan aritzen dira. Denborarekin aurrerakuntza teknologikoak Alaskaraino iritsi ahala horiek bere bizimoduarentzat ekar ditzaken aldaketaz konturatzen dira. Egun batean lehiaketa egitea erabakitzen dute: zakurrak hegazkinaren aurka nor lehenago iritsi, baina hegazkina ez da helmugara iritsiko...

1995, EEBB. 65 min. Simon Wells. Marrazki bizidunak.

